

Aparteko berrikuspen-errekurtsoa

Administrazio-bidetik egintza irmoen aurrean errekurtsoa jartzeko prozedura, baldin eta baldintza jakinak badaude.

Objektua

Administrazio-bideko egintza irmoen aurrean, aparteko berrikuspen-errekurtsoa jar daiteke hala eman zituen administrazio-organoaren aurrean. Organo hori izango da ebazpenaren arduraduna, 39/2015 Legearen 125. artikuluan bildutako baldintzetako baten kasuan, jarraian azaltzen direnak:

- a) a) Haiek ematean, egiteko okerra egon izana, espedienteari gehitutako dokumentuen ondorioz.
- b) Gaiaren ebazpenerako ezinbesteko dokumentuak agertu izana, nahiz eta beranduagokoak izan, errekurtsoa jarri zaion ebazpenaren okerra frogatzen dutenak.
- c) Ebazpenean eragina izan duten dokumentu nahiz lekukotasunak faltsutzat jo izana epai irmo bidez, ebazpen aurretik edo ondoren.
- d) Ebazpena eman izana prebarikazio, eroskeria, indarkeria, iruzur edo jokabide zigorgarriko egoeratik eratorria eta hala deklaratzeko epai irmo bidez

Araudia

- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena (123. eta 124. artikulua)
- 4/1990 Legearen 82. artikulua, ekainaren 29koa, Estatuko 1990eko aurrekontu orokorra.

Nork eska dezake

Errekurtsoa jartzeko eskubidea dute administrazio-egintzan interesa dutenek, 39/2015 Legeko 4. artikulua arabera, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena. Artikuluak hau ezartzen du:

1. Administrazio-prozeduran interesa dutenak dira:
 - Prozedurari hasiera eman diotenak, norbanakoen nahiz taldeen eskubide edo bidezko interesen titular gisa.
 - Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketan eskubideak dituztenak, nahiz eta beraiek hasiera ez eman prozedurari.
 - Ebazpenak uki ditzakeen bidezko interesak dituztenak, direla norbanakoenak edo taldeenak, baldin eta behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.

2. Interes ekonomiko eta sozialak ordezkatzan dituzten elkarte nahiz erakundeak interes kolektiboen titularrak izango dira, legeak onartutako zehaztapenen arabera.
3. Interesdun egoera transmititu daitekeen harreman juridiko batetik baletor, eskubideduna izango da oinordekoa, prozeduraren egoera edozein dela.

Errekurtsogilea pertsona fisiko edo juridiko baten izenean jarduten denean, beharrezkoa da ordezkapena egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea (39/2015 Legearen 5. art.).

Hasteko era

Interesdunak eskatuta.

Prozedura ebazten duen organoa

Errekurtsua jarri zaion egintza eman zuen organo bera

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea

3 hilabete.

Epean ebazpena ez egotearen ondorioak

Ezeztaileak

Errekurtsuak

Aparteko berrikuspen-errekurtsua aurkeztu eta hiru hilabetean ebazpena eman eta jakinarazi ez bada, errekurtsua ezetsizat joko da eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioko bidea zabalik geratuko da.

Prozeduraren ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du.

Eskaera egiteko eskakizunak

Aparteko berrikuspen-errekurtsua aurkeztuko da 39/2015 Legeko 125. artikularen a) egoeran, (egitatezko okerrak eginda emandako egintzak), aurkaratutako ebazpenaren jakinarazpena eman eta hurrengo **lau urteetan**. Gainerako kasuetan, epea **hiru hilabetekoa** izango da dokumentuak ezagutzen direnetik edo epaia irmoa zenetik.

Garrantzitsua da idazkia behar bezala idaztea, 39/2015 Legearen 115. artikuluko baldintzak beteta. Hauek dira:

- Errekurtsogilearen identifikazio-datuak.
- Errekurtsua jartzen zaion egintzaren identifikazioa eta aurkaratzeko arrazoia.
- Jakinarazpenetarako kanalaren edo tokiaren identifikazioa.
- Lekua, data, errekurtsogilearen sinadura.
- Eskaera zuzentzen zaion organoa, zentroa edo administrazio-unitatea eta dagokion identifikazio-kodea.

- Xedapen espezifikiko bakoitzak, dagokion kasuan, eskatutako gainerako berezitasunak.

Errekurtsogileak okerreko errekurtsio-mota aukeratzen badu edo ez badu aurkezten ere, errekurtsioa izapidetu egingo da, garbi badago behintzat zein den bere benetako izaera.

Pertsona batek egintza batean hutsak edo akatsak egin baditu, eta horren ondorioz egintza deuseztagarri bihurtzen bada, ezin izango ditu gero akats edo huts horiek alegatu.

Eskaera aurkeztea

Aurkezpen elektronikoa (pertsona fisikoak eta administrazioarekin izapideak modu elektronikoan egin behar dutenak (39/2015 Legearen 14. artikulua)), egoitza elektroniko honen bidez:

- Sarbidea Cl@ve bidez

Aurrez aurre (pertsona fisikoak bakarrik)

Eskaera eta lotutako dokumentazioa ENAIRearen erregistroei buruzko laguntza-bulegoan aurkeztuta: Avda. de Aragón, 330 – Edificio B - 28022 Madrid

Urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena, aurreikusten den edozein tokitan:

- Edozein administrazio-organoko erregistroei buruzko laguntza-bulego edo erregistro elektronikoetan, estatuko administrazio orokorrekoa, autonomia-erkidegoetako administrazioetako edo tokiko administrazioetako edo sektore publikoko erakunde batekoa bada.
- Correos-eko bulegoetan, arau bidez ezarritako moduan.
- Atzerrian Espainiak dituen ordezkariak diplomatiko nahiz bulego kontsularretan.
- Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen beste edozein lekutan

Datuen babesa

Tratamenduaren arduraduna: ENAIRe.

Helburua: Aurkeztutako aukerako berraztertze-errekurtsioa izapidetu eta kudeatzea

Legitimazioa: Datuen tratamendua administrazio-prozeduraren araudi erregulatzailean oinarritzen da.

Hartzaileak: Datuak ez zaizkie lagako hirugarrenei, legezko betebeharren kasuan izan ezik.

Eskubideak: Datuak kontsultatzea, zuzentzea eta ezabatzea, eta beste eskubide batzuk erabiltzea, ENAIRearen Datuak Babesteko Unitate Zentralean (UCPD) (Avda. de Aragón 330 - Edificio B - 28022 MADRID) edo egoitza elektronikoaren bidez (sede.enaire.gob.es).

Informazio osagarria: Informazio osagarria kontsulta dezakezu hemen: I. eranskina – Informazio osagarria – Datuen babesa.

I. eranskina – Informazio osagarria – Datuen babesa.

Tratamenduaren arduraduna

Nortasuna: ENAIRE – IFZ: Q2822001J

Posta-helbidea: Avda. de Aragón, 330 - Edificio B - 28022 Madrid

Telefonoa: 913 21 02 11

Helbide elektronikoa: informacion@enaire.es

Datuak babesteko ordezkaria (DBO): ucpd@enaire.es

Tratamenduaren helburua

Helburua: Inprimaki honen bidez bildutako datu pertsonalak ENAIREri buruz aurkeztutako kontsulta, kexa edo iradokizuna izapidetu eta kudeatzeko erabiliko dira.

Kontserbazioaren epeak: Legeria aplikagarrian aurreikusitakoak erantzukizunen preskripzioari dagokionez.

Legitimazioa

Datuen tratamendua DBEOaren 6.1. c) artikuluan oinarritzen da: administrazio-prozeduraren araudi erregulatuzailea (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearena).

Hartzaileak

Datuak ez zaizkie lagako hirugarrenei, legezko betebeharren kasuan izan ezik. Ez dago aurreikusita beste herrialde batzuei edo nazioarteko erakundeei transferentziak egitea.

Eskubideak

Ukitutako pertsonen hurrengorako eskubidea dute:

- Baieztapena jasotzekoa, jakin nahi badute ea ENAIREk haien datu pertsonalak tratatzen dituen.
- Haien datu pertsonaletan sartzekoa, baita datu okerrak zuzentzeko eskatzekoa ere, edo haien ezabatzekoa, beste arrazoi batzuen artean, datuak ez direnean beharrezkoak jaso zirenean zuten helburuak lortzeko.
- Egoera jakin batzuetan hau eska dezakete:
 - Datuen tratamendua mugatzea; kasu horretan, ENAIREk datuok mantenduko ditu soilik erreklamazioak egiteko edo defendatzeko.
 - Datuen tratamenduari aurka egitea eta, hala izanez gero, datuak tratatzeari utziko dio ENAIREk, premia larrietarako edo aurkez litezkeen erreklamazioak egin edo haien aurrean defendatzeko izan ezik. Horrek barnean hartzen du datuak banako erabaki automatizatuetarako tratatzea ere.

Eskubideak ENAIREren Datuak Babesteko Unitate Zentralaren aurrean erabili ahal izango dira (UCPD - Avda. de Aragón 330 – Edificio B, 28022 Madrid) edo egoitza elektronikoaren bitartez (enaire.sede.gob.es).

Zure eskubideak erabiltzean ez baduzu jaso beharrezko arreta, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren aurrean – Helbidea: C/Jorge Juan, 6 - 28001 MADRID (Madrid) – Egoitza elektronikoa: sedeagpd.gob.es.